

Hamaika Olentzero gaur, herrian barrena

■ Pipa hortzetan, *kaxkoan* eta inguruetan ibiliko da talde ezberdinen eskutik.



Langileko ikasleak iaz baserriar jantzita. (Argazkia: Xabier Allur).

GAUR Olentzerok badu nahikoa lan herri osoarekin kunplitzen. Goizean, Urumea, Langile, Elizatxo eta Inmaculadako ume koskorrekin irten beharko du. Han eta hemen, ikasleek Gabonetako kantak kantatuko dizkigute; azken egunetan jo eta su entsaiatu dituzten horietan. *Aurrera* taldekoak eguerdian irtengo dira kalez-kale. Olentzero dotore

askoa dute prestatua, baina, jende gutxi xamar omen da hura karraiatu eta kaleak kantuz alaitzeko. Laguntzeko prest daudenak 12.00etan, Biterin.

BASERRIZ BASERRI

Dobera Euskara Elkarteak baserri baserri eramango du gure *ikazkina*. Arratsaldeko 15:00etan irtengo dira plazatik, *Anatx* eta Mendiluze bertsolariek

girotuta. 18:00etan Kaxkoko buelta egingo dute. Eguneko ahots goxoena, ordea, *Kantuzkoek* agertuko dute: 17:30etan irtengo dira. 20:00etan, berriz, manikalejira Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatuta.

Konpromiso hauek eta gehiago izango ditu Olentzerok Eguberri bezperan; eta gauean: tximinitik sartu eta erregalo banatzera! □

■ 3garren MAILAKO FUTBOL LIGA

Hernanik 0 - Alavesek 0

Imanol Garmendia (Entrenatzailea)

■ KRONIKA: Zer moduzko partidua gaurkoa?

IMANOL GARMENDIA: Partidu ona izan da, aukera asko izan ditugu, baina ez dugu asmatu golik sartzen.

■ Orain arteko balorazioa?

Balorazio positiboa egiten dut.

Gaizki hasi ginen, baina, tankera hartu diogu mailari. Orain, saikapenaren erdialdean gaude.

■ Aurrerako zein helburu?

Goiko postuetan sartzen saiatuko gara, baina, realistik izanda, arazorik gabe mailari eustea da



Imanol Garmendia

gure helburua. Arriskutsua beheko postuetan sartzea da, jendeak motibazioa galdu eta etsi egiten baitu. Errealari horixe pasa zaio. □

Musika Bandak kontzertua, udaletxeko arkupetan

■ Eguerdiko ordubatean, Manuel Sagarna zuzendari dela.

Herriko Xake Txapelketako bigarren fasea hasi da

■ 40 lagunek jokatuko dute: bosteko zortzi talde

■ Partidek urtarrilaren 26rako jokatuta beharko dute.

ELKAR probatzeko fasea bukatu eta elkar neurtzeko hasi dute Xake Txapelketan. Aurreko fasean taldeko denek elkarren kontra jokatu eta guz-

tiak pasa dira aurrera. Orain ere, hala jokatuko dute, baina, talde bakoitzetik bi pasako dira. Partidak: Txema, Bodega, Kitto eta Aker tabernetan. □

Artelan erakusketa Plaza Berrin, fidantzak ordaintzeko

■ *Utzi Hernani bakean* plataformak antolatuta, artistek emandako obrak daude salgai ■ Jai egunetan 17:00-20:00etara dago zabalik; bestela, 18:00-21:00etara. Urtarrilaren 5a arte zabalik.

Presoen aldeko manifestazioa, zortzietan

■ Gestorek presoen alde antolatutako ekimenen barruan, *manikalejira* egingo da, Olentzero eta guzti. Gudari plazan hasiko da. Ondorenean, zozketa: kilo angula, egokitzen zaionari!

‘BERTSO LATA’

‘Bertso-txata’ asteazkenean

■ Esperimentua Atxur tabernan izango da, zazpitan.

‘ARGIA’ astekariak eta Irauliok bertsolaritza zeharo *moda-berrituko* dute Hernanin: kupelordeko, pantaila bat jarri eta ordenadorez bertsotan! Batzuk

Atxurretik bertatik; eta besteak, auskalo nondik. *Iraulio* zer den internetez jakin nahi duenak, berriz, asteazkenetik aurrera: *argia.com* helbidean. □

Bihar, Eguberri eguna, ez da Kronikarik izango

BADATOR OLENTZERO, BADATOR



Txirrita 10 ☎ 943 552395 - HERNANI
Gaur igandea zabalik.

Allianz 

ASEGURUAK
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Tel.: 943 557 326
656 735 109

BEGIRA OPTIKA



URBIETA 8, TEL.: 943 55 41 54 HERNANI

MARI FA ARRANDEGIA



Nagusia 36 943 55 04 89
Orkolaga 17 943 55 27 41
HERNANI



Telemar ITXASTELE S.L.

Telyco denda
Elkano 13, HERNANI

☎ 943 33 26 00

‘Telefonica’ko banatzaile eskusiboa, Movistar, zentralitak, ‘Centrex’, Telefono altak, Telefonía mugikorra, Faxak, ‘Via Digital’,...

Eguberrieko eskaintza:
‘Telefonica Famitel’ 14.900 Pta



Emakumeen egoera aztertzen ari da Ongintza

■ 2600 herritarrei egingo die inkesta ■ Beste herrietako esperientzian oinarritu dira.



Azterketa egiten ari diren hiru inkestatzaileak, datuak sartzen.

EMAKUMEAREN egoerak kezkatuta, Ongintza Patronatuak proiektu berria jarri du martxan.

Nola bizi dira emakumeak Hernanin? Zer behar dituzte? Nola bizi dute lan mundua?

Gizonezkoekin konparatuta berdin al daude? Ba al dakite beren eskubide eta aukeren berri? Zer egiten du denbora librean (daukanak)? Osasunari buruz ba al du behar adina informazio?...

AZTERTU ETA EGIN

Proiektua, berez, ez da oraingo. Urte hasieran heldu zioten, baina ezertan hasterako, tankera bereko pausoak eman dituzte herrietako esperientzia ezagutu dute: Arrasatekoa, Ermukoa, Eibarkoa...

Guztietan, emakumearen egoera hobetzeko ezer zehatzik egin aurretik, beren herriko egoera aztertzen dute. Eta Hernanin ere horixe egin nahi du Ongintzak, Imanol Beroitz zinegotziak esan digunez.

MARTXORAKO BUKATUA

Hiru gazte ari dira inkestak egiten: etxez etxe, irakasleei, herri mugimendu eta elkartei, gazteei... sektore askotako gizon-emakumei ari dira galdezka. Normalean, gainera, jendeak ondo hartzen du eta erantzuten omen du.

Martxo bukaerarako 2600 inkesten datuak bilduta eta antolatuta egongo dira, Beroitzen hitzetan. Datuek zer panorama erakutsi, halako plana dute prestatzekoa. □

Boleibol eta eskubaloi ikastaroak, Gabonetan

■ Boleibola: 12-16 urte bitarteko mutilentzat ■ Eskubaloia: 10-16 urte bitarteko neska-mutilentzat.

HERNANIKO boleibol eta eskubaloi taldeek gazteentzako ikastaroak antolatu dituzte, asteartetik (abenduak 26) urtarilaren 5era arte, kiroldegian.

GOIZETAN

Boleiboleko entrenamenduak 10:30etan hasi eta 12:30etan

bukatuko dira. Eskubaloiekoak, berriz, 10:00etan hasi eta 12:00etan bukatu.

IZEN EMATEA

Boleibolerako 943-336079ra deitu edo kiroldegitik pasa. Eskubaloiarako, ikastaro egunean bertan azaldu. □

ASTEBURUKO ZINEA

'Esta abuela es un peligro'

Igandea: 17:00etan. Astelehena: 17:00 eta 19:30etan. Biterin

'El cabo del miedo'

Datorren asteartean: 21:00etan. Triku tabernan.

TELEBISTAK BIDEOAK BIDEOKAMARAK ETXE TRESNAK

expert

ANEXO

Eskaintza bereziak.
Segundo Izpizua 21
Tel. 943 55 03 81 - HERNANI

ARALAR TABERNA

ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

JANTZIDENDA

LOHER

Emakume



Gizon eta haurrentzat

UGALDE, S.A.

SUKALDE ALTZARIAK

Lastaola industrialdea p.16
Tel. 943.551.598
Faxa 943.552.067
20120 HERNANI

Zinel

HERNANI KOLORETAN

Kronikako kalendarioa hernaniarren argazkiekin

■ Kioskoetan salgai ■ Laguntza: haundiak 500 Pta, eta txikiak 100 Pta.

HERNANI 2001

HERNANIKO KRONIKA WWW.hkronika

✓ IPUIN KONTAKETA BITERIN

Datorren asteazkenean, 11:00etan. Itziar Zubizarretak kontaktuko ditu: 11:00etan, 3-4 urteko umeentzat; 11:30etan 5-8 bitartekoentzat.

✓ 'BATASUNA' PROZESUKO BILERA

Ostegunean Biterin, 19:30etan. Aurreko larunbateko eztabaidak jarraituko du: "Eraiki nahi dugun herritar batasuna".

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bulnes Etxeberri. ☎ 943 557738
- ▶ Gaez: Oa Usurbil. 1 Poligonoa, 1 ☎ 943 376076

IRAGARKI MERKEAK

▶ Autoa salgai. Renault Express, diesela, SS-AP matrikula. ☎ 943-33 05 88

▶ Hernaniko emakume euskaldun bat behar da etxeko lanak egin eta 2 haur zaintzeko. Goiz eta arratsalde. Gizarte asegurantzarekin. ☎ 669 84 17 31



SANTA BARBARA
PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

AUTO ETA FURGONETA ZAHARRAK HARTU ETA 2. ESKUKOEZ ALDATZEN DITUGU

- ▶ Peugeot 405 Diesela nahiz Gasolina 350.000 pza
- ▶ Peugeot 205 Diesela 350.000 - 680.000 pza
- ▶ Citroen C-15 Diesel batzuk 380.000 pztatik
- ▶ Ford Courier Diesela-Lagundutako direkzioa
- ▶ Opel Astra 'Caravan' Diesela 775.000 pza
- ▶ Opel Astra Diesela 875.000 pza
- ▶ Suzuki 'Todo Terreno' 375.000 pza

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...